

## / Nabarmenezkoak

- > "Asko balio du!", 2022ko Kaishop kanpainaren leloa (2. or.)
- > Parkimetro berriak (2. or.)
- > "Kalefest", euskarazko kaleko arteen jaialdia abian da (4. or.)



\* Getxon 70 ekintza baino gehiago eta horietan, besteak beste, Imanol Arias, María Galiana, Joaquín Achúcarro, Immaculate Fools, Zetak eta Ron Carter izango dira (3. or.)

**Musika: Bizkaia Hauspoa.** Bilboko Akordeoien Orkestra Sinfonikoa. Hilaren 20an, ostiralean, 19:30ean, Muxikebarrin. Gonbidapenarekin.

**Antzerkia: "Los dioses y Dios",** Rafael Álvarezekin, "EL Brujo". Hilaren 21ean, larunbatean, 19:30ean, Muxikebarri. 18€.

A-  
GENDA

## Jesusen Bihotzaren Udal Egoitza, Bizkaian plaza guztietarako bizikidetzaren unitateak dituen lehena

Jesusen Bihotzaren Udal Egoitzan plaza guztietarako ezarritako bizikidetzaren unitateen ereduagatik Foru Aldundiaren antzitespena jaso du, langile guztiek parte hartu duten eraldaketa-prozesu baten ondoren. Une honetan Bizkaian plaza guztietarako eredu hori duen lehen zentroa da bertokoa, 6.400 m<sup>2</sup>-ko azalerarekin. Aldundiarekin hitzartutako 70 plaza ditu, lau unitatetan banatuta, 2. edo 3. mendetasun-maila duten adinekoentzat, eraikineko lehen, hirugarren eta laugarren solairuetan. Etxebizitza Komunitarioaren bosgarren unitatea gehitu behar zaie, bigarren solairuan, I. mendetasun-maila duten adinekoentzat, Eguneko Arretarako Udal Zerbitzuarekin batera.

Birmoldaketa 2017an hasi zen eta "Foru aitortzen honek duela urte batzuk, langile guztien ahaleginarekin, egoitzak hasitako prozesuari balioa ematen dio. Honek aldaketa kultural bat ekarri du, kasu honetan, erakundeak egokitzen baita erabiltzaileei, etxe baten antza duten etxebizitzetan antolatuz. Helburua haien autonomia bultzatzea eta gaitasunak sustatzea

da eta, aldi berean, haien duintasuna, eskubideak eta bizitzaren historia errespetatzea. Eraldaketa guzti honen emaitza lortzeko ezinbestekoa izan da langileen lana, motibazioa eta inplikazioa. Langileek egindako ahalegina handia izan da, bizi izandako pandemiaren garai latzean ere etenik izan ez duena", nabarmendu du Amaia Agirre alkateak.

### Plaza libreak Etxebizitza komunitarioa

Bizikidetzaren unitateen eredu Etxebizitza Komunitarioan ere badago, hau da, bizitoki-aukera egokirik ez duten 65 urtetik gorako pertsonentzat. "Etxebizitza komuni-

tarioaren helburuak dira erabiltzaileek beren ingurunean jarraitzea erraztea, autonomia pertsonalaren maila eta autonomiaz moldatzeko gaitasunak hobetzea, baita isolamendu-egoerak saihestea eta haien segurtasun-sentimendua bultzatzea ere. Gainera, Egoitzan beheko solairuko hallean, kaperan eta sarbidean egin eta amaitu berri diren obrek zentroaren irisgarritasuna hobetzen dute eta, ondorioz, bizikidetzaren unitateen antolamendua hobetzen dute" agertu du Keltse Eiguren Egoitzako presidentek.

Etxebizitza komunitarioak 13 logela ditu (12 banako gela eta bat bikoitza, guztira 14 plaza), bainu-

gela egokituarekin eta eguneroko bizitzako oinarritzako jarduerak egin ahal izateko beharrezko ekipamenduarekin. Une honetan, lau plaza libre ditu, eta Etxebizitzan sartzea eskatu nahi duten pertsonen udaleko Gizarte Zerbitzuetara jo behar dute. Pertsonaren premien hasierako balorazioa egin ondoren, horiei erantzuteko zerbitzurik egokiena den ebaluatuko dute. Eskatzaileek 65 urte beteta izan behar dituzte (salbuespen gisa, 60 urte edo gehiago, gainerako baldintzak betetzen badituzte), I. gradu mendetasun-egoeran, eta Getxoko udalerrian errolatuta egon behar dute, eskabidea aurkeztu aurreko 12 hilabeteetan, jarraian.

### Obrak amaituta

Amaitu berri dituzten obrek harrera sarreratik hurbilago dauden eremu batera eraman da; kaperan zegoen oihartzuna kendu egin da, bileretarako edo bestelako jardueretarako ere erabili ahal izateko, margotzeaz eta zorua aldatzeaz gain, eta irekiera automatikoko ate bat jarri da beheko solairutik, sarreran.



Lurzoru urbanizagarrian eta hiri-lurzoruan hasi gabeko urbanizazio berriko jarduketari eragingo die

## Lizentzien onarpenaren etetea Getxoko zenbait eremutan HAPOgatik

Udal Gobernuak Getxoko eremu jakin batzuetan plangintzako tresnetarako, hirigintza-kudeaketarako eta lizentzietarako onarpenak eteko dekretua sinatu du, gehienez urtebetez, 2001eko HAPO-Hiri Antolamendurako Plan Orokorren planteamenduekin bat ez datozen eta, batez ere, agertoki berriak eskatzen dituen beharretara egokitzen ez diren eremuetan. Beraz, lurzoru urbanizagarrian eta hiri-lurzoruan hasi gabeko urbaniza-

zio berriko jarduketari eragingo die etete horrek, eta, legean ezarritakoaren arabera, ez da urtebete baino luzeagoa izango, HAPOren hasierako onespena ematen denean automatikoki etengo den arren.

Ondorioz, etete horren arabera, aurreratzean, eta gehienez urtebetez, ezin izango dira honako tresna hauek izapidetu: planeamendua, hirigintza-kudeaketa eta partzelazio- eta banantze-lizen-

tziak; oin berriko mota guztietako instalazioak eraiki eta ezartzeko obrak; eta lurzoru urbanizagarriko eremu hauetarako dauden era guztietako eraikuntza eta instalazioak handitzeko obrak (Martituri, Arteaga, Aizkorri, Saratxaga, Moreaga eta Mimenagako sektoreetan); eta Hiri Lurzoruan (San Nikolas, Sarrikobaso, Zubilleta eta Maria Unobaga gunean).

"Interes orokorra bermatzeko eta Hiri

Antolamenduko Plan Orokorren ezarritako helburuak lortzeko beharrezkoak diren babes-neurriak ezarri nahi dira horrekin, batez ere baliabide naturalak eta kulturalak, lurraldea, lurzorua eta hiri- eta arkitektura-ondarea zentzuz erabiltzearen aldeko apustutik eratorritakoak, erregulazio berriak garapen jasangarriaren eta integratuaren printzipioa bete dezan", adierazi du Álvaro González, Kontratazio, Ondare eta Etxebizitzako zinegotziak.



### MAIATZAK 12 OSTEGUNA

**Kaleko arteei buruzko jardunaldiak. Arteen sukaldea: kultura bizi.** Muxikebarrin, 9:30-14:15, Artekale Euskal Herriko Kaleko Areetan elkartearekin elkarlanean. Izen-ematea: [www.artekale.org](http://www.artekale.org).

**Zinemabarri.** Muxikebarrin, 19:00etan, Yorgos Lanthimosen "Langosta". 16 urtetik gorakoentzat. Sarrera: 3,50€.

**Hitzaldia.** "Prevención del fraude", 18:00etan, Romo Kultur Etxeko 3. solairuan. Antolatzailea: Getxo Lagunkoia.

**San Isidro jaiak.** Txupinazoa, 20:00etan, Andra Mari kirodegiko aparkalekuan. Ekitaldiak: igandera arte. Egitarau osoa: <https://labur.eus/541t5>

### MAIATZAK 13 OSTIRALA

**Kaleko arteei buruzko jardunaldiak. Arteen sukaldea: kultura bizi.** Muxikebarrin, 10:00-14:00, Artekale Euskal Herriko Kaleko Areetan elkartearekin elkarlanean. Izen-ematea: [www.artekale.org](http://www.artekale.org). Ikuskizunak: "Zirkotarrak" (Zirkozaurre), 18:00etan, Muxikebarriko kanpoaldean; "Gora bihotzak" (La Pez), 19:00etan, San Nikolas plazan, eta "Edén" (Arriera), 20:00etan, plaza berean. Sarrera dohainik.

**Getxoko ondare eta naturari buruzko ibilbide-tailerra. "Maizta berdea".** 4-12 urte bitarteko haurrak dituzten familientzat, 17:00-19:00. Topagunea: Romo Kultur Etxean. Gaztelaniaz. Izen ematea: [www.getxo.eus/apuntazaitz](http://www.getxo.eus/apuntazaitz)

**Musika. Bakarka zikloa.** "Les Fous", 19:30ean, Romo Kultur Etxean. 5€.

**Kontularien kluba.** 19:00etan, Algortako Kultur Aretuan, ipuinak entzun edo kontatu nahi dituzten helduen bilera.

**Zine-Kluba.** Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 21:00etan, Naomi Kawaseren "Madres verdaderas", Azpitiuludun Jatorrizko Bertsoia. 12 urtetik gorakoentzat. 3,50€.

### MAIATZAK 14 LARUNBATA

**Dantza plaza.** Herri-erromeria, 19:00etan, Biotz Alai plazan, Agurra, Berantzagi, Itxartu, Itxas Argia eta Zasi Eskola taldeekin. Parte-hartea irekia.

**Musika: Bigarren zapatua euskaraz.** Olatz Salvador: "Aho uhal", Muxikebarrin, 19:30ean. Sarrera: 10€.

**Kontzertua.** 19:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Patricio kontzertuan: dokumentalaren proiektzioa eta "Hollywood es sólo una palabra" diskoaren aurkezpena. Sarrera: 5€.

**XXVII. Herrien Jaialdia.** Dantzak Itxas Argiarekin eta, urtero beazala, kanpoko talde batekin: Rancho Folclórico São Bartolomeu de Messines izeneko taldearekin. 21:00etan, Andra Mariko frontoian. Sarrera dohainik.

### MAIATZAK 15 IGANDEA

**Dantza.** Martin Zalakain. Argia Dantza Taldea (Ikerfolk), 19:00etan, Muxikebarrin. Sarrera: 15€.

**Musik. MMusika zikloa.** "Soinuaren bidaia", 19:30ean, Muxikebarrin.

Sarrera: 10€.

**Zinematik.** "Barraskilo eta barea", 12:00etan, Muxikebarrin. Euskaraz. Adin guztiak. Sarrera: 2,50€.

### MAIATZAK 16 ASTELEHENA

**XXXVII Filatelia Erakusketa.** Romo Kultur Etxean. 11:00-13:00 eta 17:00-a 20:00. Maiatzaren 22ra arte.

**Odol-emate.** Algortako Geltokia plazan, goizeko eta arratsaldeko ordutegian.

### MAIATZAK 18 ASTEAZKENA

**Kontatu erretratu hau.** Getxoko ondare argazkien bidez identifikatzeko tailerra 60 urtetik gorako pertsonentzat. 18:00etan, Romo Kultur Etxean. Gaztelera. Sarrera dohainik.

### MAIATZAK 19 OSTEGUNA

**Odola ematea.** Areetako Geltokia plazan, goizez eta arratsaldean.

**Ipuinaren ordua.** Romo Kultur Etxean haur liburuetan, 18:00etan, "Criaturas monstruosas", Cataplinaekin. 3 urtetik aurrera. Sarrera dohainik.

**Literatura solasaldia.** 19:45ean, Algortako Kasinoan, Mario Benedettiren "Primavera con una esquina rota".

**Zinemabarri.** Muxikebarrin, 19:00etan, Pedro Almodóvarren "Madres paralelas". 12 urtetik gorakoentzat. Sarrera: 3,50€.

**Hitzaldia.** "Prevención de caídas", 18:00etan, Romo Kultur Etxeko 3. solairuan. Hizlaria: Javier Larrea, Bilboko Udaleko suhiltzaileen zuzendari ohia. Antolatzailea: Getxo Lagunkoia.

### MAIATZAK 20 OSTIRALA

**Getxoko ondare eta naturari buruzko ibilbide-tailerra. "Maizta berdea".** 4-12 urte bitarteko haurrak dituzten familientzat, 17:00-19:00. Topagunea: Romo Kultur Etxean. Gaztelaniaz. Izen ematea: [www.getxo.eus/apuntazaitz](http://www.getxo.eus/apuntazaitz).

**Zine-Kluba.** Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 21:00etan, Agnès Jaouiren "Para todos los gustos". Adin gustientzat. Sarrera: 3,50€.

**Musika. Bizkaia Hauspoka.** Bilboko Akordeoi Orkestra Sinfonikoa. Zuzendaria: Amagoia Loroño. 19:30ean, Muxikebarrin. Sarrera: Muxikebarrin eta Romo Kultur Etxean jaso beharreko gonbidapenez.

### MAIATZAK 21 LARUNBATA

**Ipuin kontaketa: Storytime.** "Under the sea", Algortako Kultur Etxean, 11:00etan, Kids&Us Getxo-Algortaren eskutik. Ingelese. 2-10 urte. Izen-ematea: [getxo@kidsandus.es](mailto:getxo@kidsandus.es) / [algorta@kidsandus.es](mailto:algorta@kidsandus.es).

**Antzerkia.** Rafael Álvarez, "El Brujo"-ren "Los dioses y Dios", Muxikebarrin, 19:30ean. Sarrera: 18€.

### MAIATZAK 22 IGANDEA

**Haur Dantza.** "Loop", Aracaladanarekin, 19:00etan, Muxikebarrin. 4 urtetik gorakoentzat. Sarrera: 8€.

**Zinematik.** "Sonic 2, la película", 12:00etan, Muxikebarrin. Euskaraz. 7 urtetik gorakoentzat. 2,50€.

**Haur zinea.** Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 17:00etan, "Ainbo, Amazoniako gerraria". 7 urtetik gorakoentzat. 2,50€.

**Mendi-irteera.** Mendiko Lasterketa. Uribe Kosta. IV. BMF Mendi Lasterketen Liga. Antolatzailea: Etor-kizuna Mendi Taldea. Inskripzioak irteeraren aurreko asteazkeneko 24:00ak arte: [etorkizunamt@gmail.com](mailto:etorkizunamt@gmail.com) eta tel.: 606 637 128.

# "Asko balio du!", 2022ko Kaishop kanpainaren leloa

*Asko balio du!* da herriko merkataritzan euskararen erabilera bultzatzen duen *Kaishop*, *Erosi euskaraz Getxon* kanpainaren aurtengo leloa, Getxoko, Barakaldoko eta Erandioko Udalek, Txorrieriko mankomunitateak eta Alkarbidek antolatuta, Aldundiaren laguntzarekin. Helburuak dira tokiko merkataritzaren tratu pertsonala sustatzea eta euskarak duen garrantzia nabarmentzea. "Udalerriko establezimenduek kalitatezko produktuak gertu eskuratzeko aukera ematen dute. *Asko balio du jendea euskaraz entzuteak eta bertan erosteak*", nabarmendu du Irantzu Uriarte Euskara zinegotziak. Kanpaina kartelen eta bideo baten bidez zabalduko da (markesinetan, metroan, gizarte sareetan...). Gainera, ELS, Euskararen Laguna Saltokietan euskaraz erosten duten pertsonak opari bat jasoko dute (poltsak, edalontziak, boligrafoak, koadernoak...).

**Lehiaketa**  
*Bota Prezioa!* lehiaketa izango da Getxon kanpainaren

bigarren fasea, maiatzaren 23tik ekainaren 12ra. Opariz betetako eskaparatearen prezioa asmatzea izango da

lehiaketaren helburua. Horren irudia ikusgai izango da hainbat tokitan. Informazioa: [www.getxo.eus/euskara](http://www.getxo.eus/euskara)



## Aniztasunaren Jaia

**Gozaketa,** Kultur Aniztasunaren jaia ospatuko da maiatzaren 22an, igandean, Algortako San Nikolas plazan, Egizu, Eskubeltz Eskaut taldea, Getxoko Bizilagunak, Getxoko Etorrinak Plataforma, Itxartu taldea, Mujeres con Voz, Mujeres Diversas Siglo XXI, Ongi Etorri Errefuxiatuak, San Nikolas Zabalik eta Sortarazi entitateek antolatuta, Udaleko Zurrumurrurik Ez Estrategiaren laguntzarekin.

Goizean sukaldaritza (margrehtar, kolonbiar, ostalaritza eskola...), eskulangintza

eta euskal dantza tailerrak izango dira. Herri bazkariaren ondoren, musika, dantzak eta gazteentzako zurrumurruen kontrako *Escape Room* bat izango dira.

Sukaldaritza tailerretarako izenematea: <https://labur.eus/gozaketa> / 622433085.



## Parkimetro berriak

TAO-Araututako Aparkatze Zerbitzuaren (AAZ) emakida duen enpresa hasi da saltzeko makina berriak instalatzen egun dauden eremu arautuetan, egungo parkimetroak ordezkatzeko. Erregulatutako gune berrien seinalez tapen horizontala eta bertikala ere egiten hasi da eta, ondoren, parkimetroak jarriko dira eremu horietan. Seinalez tapen-lanak

eguneko zein gaueko lanaldietan egingo dira, kalte posibleak ahalik eta txikiak izan daitezten.

Urdin koloreko seinale horizontalak egon arren, tiketa ez da ekainaren 1era arte ipini behar, hain zuzen ere, zerbitzua gune berrietan eta lehendik dauden eremuen handitzeetan abian jarriko den data arte.

## LABURRAK

- \* Feminismo Mintegia.** Maiatzaren 19an, *Skolastika Feminismo Mintegiaren* azken saioa izango da Romo Kultur Etxean, Emakumeentzako Jabeak Eskolak antolatuta, *Generoen eta bineten artean* gaiarekin, Josune Muñozen eskutik. Helburua LGBTI kolektiboari ahotsa ematea izango da. Sarrera irekia izango da.
- \* Filatelia Erakusketa.** Maiatzaren 16tik 22ra, Romo Kultur Etxean. Cecilio Cagigal González, elkartearen lehen presidente eta fundatzaileari omenaldia egingo dio. Ordutegia: 11:00-13:00 eta 17:00-20:00. Asteartean, hilak 17, "Titanic"aren zigilu berezia eta Ceciliori eskainitako zigilu pertsonalizatua izango dira.
- \* Berbodromoa.** Kalean euskara sustatzen duen ekimena aurrez aurre izango da, maiatzaren 19an, 09:00etan eta 11:00etan Romoko Santa Eugenia plazan, eta 18:00etan Algortako San Nikolas plazan. Gaiak: *Getxon bizi, Herriko jaiak eta Ikus-entzunezko kontsumoa*. Izenematea: <https://labur.eus/berbodromo2022iz>

Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jaularitzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

# Getxon 70 ekintza baino gehiago eta horietan, besteak beste, Imanol Arias, María Galiana, Joaquín Achúcarro, Immaculate Fools, Zetak eta Ron Carter izango dira

Maiatzetik uztailean, Muxikebarrin programazio bizia izango da, diziplina askotariko 70 ekitaldi baino gehiagorekin (antzerkia, musika, dantza, zinema, bertsolaritza...) haurrentzako eskaintza eta ezinbesteko hitzorduak ahaztu gabe, hala nola Getxo Jazza eta Nazioarteko Folklore Jaialdia.

Hilaren 21ean, Rafael Alvarez *El Brujo* arituko da, mitologia desberdinetatik ibilaldiari buruzko *Los Dioses y Dios* lanarekin. Antzerkiaren eskaintzaren barruan hurrengoak ere izango dira: *Kopaz Kopa* (maiatzaren 27an), *Rámper, vida y muerte de un payaso* (ekainaren 3an), *Lubaki lainotsua* (ekainaren 10ean), *Barro rojo* (ekainaren 16an) eta *Ave, osos* (ekainaren 24an).

Hiruhilekoaren azken txanpan, *Campeones de la comedia* (uztailak 16) lan arrakastatsua izango da, Javier Fesserren *Campeones* filmeko zentzuzko protagonistarekin. Uztailearen 29an, Arthur Millerren *Muerte de un viajante* lanaz gozatu ahal izango da, Imanol Arias buru duen aktore-taldearen eskutik. Horrezaz gain, ekainaren 25ean María Galianak *Yo voy soñando caminos* errezitaldi poetiko-musikala ekarriko du. Luis Santana baritonoak eta Víctor Carbajo pianistak lagunduta, ahotsa jarriko die bere bizitzan eragin handia izan duten egileetako batzuei.

## Musika

Larunbatean, maiatzak 14, Olatz Salvadorren emanaldia izango da. Donostiako artista indartsu itzuli da *Aho Uhal* lanarekin, eta horretarako luxuzko kolaborazioak izan ditu (Rozalén, Ivan Ferreiro eta Idoia Asurmendi, besteak beste) hainbat emakume idazleren euskarazko letrai ahotsa jartzeko.



## Patricioren dokumentala eta kontzertua

Patricio Barandiaranek bere azken diskoa *Hollywood es solo una palabra* aurkeztuko du larunbatean, maiatzak 14, 19:30ean, Areetako Musika Eskolan. Ekitaldian dokumentala proiektatuko da. Bertan, Parkinsonekin aspalditik gaixorik dagoen artistaren ibilbidea kontatzen da. Sarreraren prezioa 5 eurokoa da.



“Campeones de la comedia”

Ondoren Joaquín Achúcarro (maiatzaren 28a) pianista eta Immaculate Fools (ekainaren 4a) talde britainiar mitikoaren emanaldiak izango dira, disko berria prestatzen dabilen Garrirrena (ekainaren 10a) ahaztu gabe. Getxoko Biotz Alai abesbatzaren ahotsak (ekainaren 11n), Zetak taldearen soinu elektronikoak (ekainaren 11n) eta Goizargi Gospel Choir & Musikalia Bandaren kontzertua (ekainaren 12an) ere nabarmendu behar dira ekaineko eskaintzan. Uztailearen 9an Gaby Jogeix getxotarrak *Meanwhile in New Orleans* diskoa aurkeztuko du eta, biharamunean, Eric Estrin & The Nightcats bandak blues doinuak gerturatuko dituzte. Uztailearen 17an Xabi Aburruzagaren azken lana, *Aurrez aurre*, helduko da herriko Itxas Argia Dantza Taldearen partaidetzarekin. Uztailean musika-hitzordu garrantzitsuenetako bat izango da, Nazioarteko Jazzaldia, hain zuzen ere.

## Musika Eskolarako ikasle berrien matrikulazioa

Igandean, hilak 15, ikasle berrien inskripziorako epea zabalduko da Andrés Isasi Musika Eskolan, 2022-2023ko ikasturteari begira, Areetako eta Algortako egoitzetan. 4 urtetik nahi adinera arte eskatu ahal da lekua musika eskolan.

Inskripzioa maiatzaren 31ra arte egin ahal izango da online, [www.getxo.eus/musika-eskola](http://www.getxo.eus/musika-eskola) webgunearen bitartez. Eskola saiitzen da ikasleek etxetik ahalik eta hurbilen ikastea baina ezin du guztiz ziurtatu.

2021-2022 ikasturtean 1.100 bat ikasle izan dira zentroan. Ikasketen eskaintza: <https://labur.eus/TVP8c>

45. edizioan, Muxikebarrin bilduko ditu Talde Lehiaketako finalistak eta ordainezko-kontzertuetako figura nagusiak: Cyrille Aymée, Ron Carter, Fred Hersch, Melissa Aldana eta Gonzalo Rubalcaba & Aymée Nuviola, ekainaren 29tik uztailearen 3ra arte.

## Dantza

Hiru hilekoaren dantza proposamena *Martin Zalakain* lanarekin abiatuko da igandean, maiatzak 15, Argia Dantzari Taldearen eskutik, Pio Barojaren *Zalacaín el aventurero* klasikoan oinarrituta. Ekainaren 15etik 19ra Getxotar Dantza Astea izango da. Horretan, herriko zortzi dantza akademia bilduko dira, ikasleek urtean zehar egindako lana jendaurrean erakusteko. Ekainari aire zabalean zintzilikatutako lehen dantza ikuskizunak ipiniko dio amaiera, hilaren 19an. Eraikineko aurreko fatxadan, Harrobi konpai-

niak *Geure(r)a* eskainiko du, dantza eta proiektzio animatuak uztertuta. Uztailean Ian Garsideren dantza laborategia izango da (4tik 8ra), eta horren emaitza, *Imaginando el infinito*, hilaren 9an erakutsiko zaio publikoari, aipatutako dantzari eta koreografoaren *Hasta el infinito y más allá* izeneko lanarekin batera. Azkenik, uztailearen 22tik 24ra Nazioarteko Folklore Jaialdia izango da, aurten Georgia, New Orleans eta Getxoko hainbat talderekin.

## Haurrak

Haurrentzako programazioari dagokionez, honako ikuskizun hauek eskainiko dira: *Loop* (maiatzaren 22a) dantza lana, MAX sari bat jaso eta FETEN azokan harre-ra bikaina izan zuena; eta El Espejo Negro konpainiaren *Cris, la pequeña valiente* (maiatzaren 29a) antzezlan, haur-transexualitatea adimentsu, hunkigarri eta, aldi berean, dibertigarria den istorioa. Azkenik, ekainaren 5ean *Kantu Kolore* proiektu arrakastatsua Muxikebarrira iritsiko da, familiei beren lan berria gerturatuzko, ibilbidetaren gai ezagunenekin.

## Bestelakoak

Gainera, honako ekintza hauek ere izango dira: film laburren *Lo mejor de...* (ekainaren 1, 8 eta 15ean) eta *La noche + corta* (uztailearen 6-7an); Getxotar Abesbatzen Eguna (uztailearen 5ean) eta Bertso Jaialdi Mundiala (saio esperimental) uztailearen 13an. Azkenik, artista belaunaldi berrien lana ikusaraziko da, maiatzaren 25ean eta 27an, Dantzerti-Euskadiko Arte Dramatikoa eta Dantza Goi Eskolako ikasleen dantza eta antzerki erakusketen bitartez.

## “Y se hizo la luz” Atrezzo-Getxo taldearen eskutik

Atrezzo-Getxo antzerki taldeak, Eskuz-Esku Elkarteko kide denak, *Y se hizo la luz* (*Miscelanea* (Sss) obra estreinatuko du igandean, hilak 15, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan. Aurkezpena 19:00etan hasiko da eta sarrerak 5 euro balio du. Antzezlanaren ekainaren 12an itzuliko da Muxikebarrira.

## Laburpena

Calderon de la Barcatik hasi, Txekho-veraino, Allen-etik igaroz... antzerki espazio ezberdinak egiten ditugu, antzerki jokoari irteera emateko. Pieza motzetan edo ebakietan oinarrituta..., estilo sorta bat osatzen dugu.



## Les Fous hirukote bokalaren emanaldia

Ostiralean, maiatzak 13, 19:30ean, Les Fous hirukote bokalak errezitaldia eskainiko du Romo Kultur Etxean, tokiko artistak sustatzeko *Bakarka* zikloaren barruan. Santi Romanok, Noa Eguigurenek eta Olatz Otxoak, *Otxi*, pianoz eta perkusioz lagunduta, eta bere estiloari leialak, *Rithm & Blues* eta Pop estiloen arabera emanaldia eskainiko dute.

Maiatzetik urrira antzerkia, dantza, zirkua eta aire zabaleko zinema izango dira herriko hamar gunetan

## “Kalefest”, euskarazko kaleko arteen jaialdia abian da

Maiatzaren 28tik urriaren 15era bitartean *Kalefest* euskarazko kaleko arteen jaialdia egingo da. Ekimenak Getxoko kaleak arteen agertoki bihurtu nahi ditu, azken urteetan bizi izandako osasun-krisiaren ondorioz kulturak espazio publikoan duen presentzia berreskuratzeko xedearekin. Izan ere, jaialdia, getxoztarrek 2021eko udal aurrekontu partehartzailetan identifikatuta beharretatik jaiotzen da, eta bere helburuen artean arteekiko irisgarritasuna bermatu, euskara sustatu eta sozializatu, eta gazteei zuzenduriko kultura-jarduerak programatzea dira.

Udalerriko 10 espazio antzoki bihurtuko dira, besteak beste: Algortako Kasino plaza eta San Nikolas plaza, Areetako eskoletako plaza eta Santa Eugenia plaza, Portu Zaharra eta San Joseren parkea. Emanaldi guztietarako sarrera librea eta doakoa izango da eta 16 euskal konpainiaren proposamenik pun-



“Topa”

takoenak erakutsiko dira.

### Programazioa

Programazioa, adin guztietarako pentsatua, askotarikoa eta kalitatekoa izango da eta 29 emanaldi eskainiko ditu, hainbat diziplina uztartuz (antzerkia, dantza, zirkua, aire zabaleko zinema).

Algortako Kasino plazan hasiko dira ikuskizunak, maiatzaren 28an (larunbata), Barsanti Cia taldearen

*Kale Gorrian* obrarekin. Asteburu horretan ere, Dikhotomia, Hika Teatra eta Oinkari Dantza Taldea eta Valentziako La Fam konpainiaren *Aquiles* ikuskizun ibiltaria izango dira.

Ekaineko asteburuetan diziplina askotarikoak izango dira, antzerkia, Barsanti Cia, Markeliñe, Hortzmuga Teatra konpainien eskutik eta dantza, Altraste Dantza eta Kimua konpainien esku-

tik. Hilaren 19an, Harrobi dantza bertikalak *Geu(r)era* ikuskizuna eskainiko du Muxikebarriko parretan, dantza bertikala ez ezik, mapping-a eta musika ere uztartuko dituen ikuskizuna eta 17an Berdinki zirku garaikidearen *Mikra* ikuskizunaz gozatzeko aukera izango da Santa Eugenia plazan.

Uztailean, The Funes Troup zirku konpainiaren *Aukerak* lanaz gozatzeko dugu eta irailetik urrira bitartean, 35 *huts* (Estibaliz Curiel), *Akabo!* (Barsanti) eta *Rotonda Circus* (La Pez) antzezlanak izango dira. Iraila eta urriko asteburuetan ere, dantza protagonista izango da Kukai eta Brodas Bros konpainien *Topa*, Ertzaren *Dye Dye* eta Lia bikotearen *Musu baten eztanda-uhina* ikuskizunen bitartez.

Udako zinemari dagokionez, ekainetik urrira adin guztietarako emanaldiak izango dira Campa del Loro-n, Evaristo Txurruka kaian eta Bostgarrena kalearen ondoko zelaian.

## Jaietan txosnak jartzeko deialdia

Maiatzaren 27ra arte zabalik egongo da San Inazio jaietan (uztailak 28-31), Romokoetan (abuztuak 3-7) eta Portu Zaharrekoetan (abuztuak 10-14) txosnak jartzeko interesa duten elkarteak hautatzeko deialdia. Interesa duten elkarteek Getxoko Erakundearen Erregistroan inskribatuta egon beharko dute, eta eskatutako dokumentazio guztia erantsi beharko dute. Eskabideak telematikoki, Getxoko Administrazio Elektronikoko Bulegoan [www.getxo.eus](http://www.getxo.eus) webgunean aurkeztuko dira. Elkarte bakoitzak Getxoko Kultur Etxearekin eta Jai Batzordearekin ustiatzeko hasieratik solaskide izango den ordezkari bat izendatuko du. Oinarriak eskuragarri: [www.getxo.eus/kulturadeialdiak](http://www.getxo.eus/kulturadeialdiak)



### “Nueve loros y quince colibríes” liburuaren aurkezpena

Aurelio Gutierrez Cidek Algortan aurkeztu du *Nueve loros y quince colibríes* ipuinen liburu. 22 kontakizun ez osatutako bilduma berri bat da, ironia osasuntsu baten, egokitu ezinaren eta samurtasunaren ingurukoa. Bere bigarren literatura lana da. 2000garrenean *18 bolas extra* argitaratu zuen, kontakizun laburren beste bilduma bat. Aureliok dioenez, Kontularien Klubarekin izan duen lankidetzak estuak eta Getxoko idazketa sortzailearen tailerreko ikasle gisa eman dituen eskolek asko lagundu dute kultura “zerbait biziarrentzat, lehentasunezkoa, babestu eta lantzeko”.

## Maiatza, tximeleten hilabetea

Maiatzean tximeletei buruzko bi tailer egingo dira, *GetxoNatura*, *Ezagutu eta Zaindu* jardunaldien barruan, Ingurumen Sailak antolatuta, heldu, gazte eta haurrentzat.

Eguneko tximeletei buruzko tailerrak hitzaldi teoriko bat izango du maiatzaren 14an, larunbatean, 18:00etan, RKE-Romo Kultur Etxean, eta irteera bat maiatzaren 15ean, igandean, 10:00etatik 13:30era. Bestalde, maiatzaren 21ean, larunbatean, gaueko tximeletei edo sitsei buruzko tailer-praktikoa emango da. Kasu horretan, zati teorikoa 18:00etan ere izango da, RKE-n, eta gau horretan bertan egingo da praktika.

Izenematea: [boluenatura@gmail.com](mailto:boluenatura@gmail.com). Informazio gehiago: [www.getxo.eus/es/medio-ambiente](http://www.getxo.eus/es/medio-ambiente)

## KIROLAK

Datorren larunbatean, hilak 21

## Boxeo gaua Andra Mariko probalekuan

Andra Mariko probalekuan, datorren larunbatean, maiatzak 21, 20:00etan, boxeo emanaldia izango da, Izarrak Boxing-ek antolatua, Getxo Kirolak-en laguntzarekin.

Kirol hitzordu horretan Getxoko hainbat boxeolarik hartuko dute parte, hala nola Izarrak klubeko Andoni Nikolasek eta Jon Mozok, edo Neko taldeko Indar Bilbao hasiberriak. Izarrak taldeko Pily Floresek Bilboboxingeko Ane

Cerratoren aurka ere boxeatu du. Halaber, Izarrak taldeko Sow Abdoulahk debuta egingo du, eta parte-hartzaileen artean Markel Gutierrez, Iván Olivares, Daniel Ramirez, Cristian Darwin, Víctor Gian Perre, Ioritz Rodríguez, Salah Farroukh... egongo dira.

Sarrerak aldeztatik erosi daitzke klub parte-hartzaileetan (10 €) edo egunean bertan txarteldugian (13€).

Abrako uretan

## “EKP International Women’s Sailing Cup” bueltan da

Real Club Marítimo del Abra-Real Sporting Clubek antolatu du, asteburu honetarako, maiatzaren 13tik 15era, *EKP International Women’s Sailing Cup* J80 klasean hirugarren edizioa, Abrako uretan izango dena. Hirugarren urte jarraian, emakumezkoen tripulazioak eszenatokira itzuliko dira eta protagonismoa hartuko dute. Euskadiko Kirol Portuak elkarrekin babestutako proba da Ge-

txon datozen hilabeteetan egingo den bela kirolaren beste hitzordu nagusietako bat. Aurreikuspenen arabera, estatuko hainbat puntutako hamabost emakumezko ontzik parte hartuko dute besteak beste, Joana Abásoloren Fhimasa *Escuela de Vela José Luis de Ugarte*, Carmen Arbaizaren *Surne Women’s Team*, Thais Basañezen *Jet Set* edo Pakea Getxo Bela herriko eskifaiak.